

Euskotren

Euskara Plana

2015eko maiatza

euskotren 

elhuyar 
Aholkularitza





Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Planaren helburuak: helburu orokorra eta zehatzak.....	4
3. Ardazkako plangintza.....	5
4. Plana garatzeko egitura	26



1. Sarrera

Dokumentu honetan datozen hiru urteetarako Euskotrenen euskararen erabileran aurrerapausoak emateko Euskotreneko Euskara Batzordeak adostu dituen helburuak eta ekintzak jaso ditugu.

Plangintza hau Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikak definitutako V. Plangintzaldiaren markoaren baitan kokatzen da eta 2015-2017rako Euskotreneko Euskara Plana jasotzen du.

Plan honek Euskotreneko eragile garrantzitsuenen adostasuna izan du ardatz eta aurrerantzean ere Euskara Planaren inguruan adostasunak lortzeko nahia eta borondatea adierazi da.

Abiapuntu bezala, 2009an egindako diagnostikoa hartu dugu oinarrian. Diagnostikoan hainbat lorpen identifikatu dira eta baita hainbat egin behar. Era berean, errealitate desberdinak aurkitu ditugu eta beraz, plangintzan kontuan hartuko ditugu abiapuntuak ez direla berdinak.

Euskotrenen nahia da, bai kanpora begira eta baita barrura begira ere, urrats sendoak ematea, eta euskararen erabilera ohikoa eta naturala izateko konpromisoa hartzen du.

Diagnostikoaren ondorioak eta erakundearen izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, beraz, Euskotreneko Euskara Batzordeak datozen 3 urteetarako Euskara Planaren helburuak behekoak izango direla adostu du.



2. Planaren helburuak

Helburu orokorra

- Euskotreneko bezeroei euskarazko zerbitzua bermatzea, eta langileen artean euskararen erabilera handitzea.

Helburu zehatzak

- Hizkuntza-politika edo hizkuntza-irizpideak zehaztea, horiek langileei eta gainerako interes-taldeei jakinaraztea, irizpideak betetzeko neurriak eta baliabideak jartzea eta betetze-mailari segimendua egitea.
- Euskara Planaren inguruko adostasun zabala lortzea.
- Gizartean erakunde euskaldunaren irudia zabaltzea, urratsak eman ahala.



3. Ardatzako plangintza

Euskotreneko Euskara Plana diseinatzerakoan EME (Erreferentzia Marko Estandarra) hartu dugu oinarri moduan. Hona hemen marko horren arabera euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketan aurrera egiteko landu beharreko ardatzak eta elementuak:

1. Ardatza: Erakundearen irudia eta komunikazioa
1.1. Hizkuntza-paisaia eta irudi korporatiboa
1.2. Harrera
2. Ardatza: Kanpo-harremanak
2.1. Bezeroa eta zerbitzua
2.2. Hornitzaileak
2.3. Finantza-entitateak
2.4. Enpresa kolaboratzaileak
3. Barne-harremanak
3.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia
3.2. Pertsonen kudeaketa
3.3. Laneko prestakuntza
3.4. Baliabide informatikoak
3.5. Komunikazio horizontal eta bertikala
3.6. Kudeaketa-sistemak
3.7. Antolaketa eta estrategia
4. Hizkuntza-kudeaketa
4.1. Hizkuntza-politika
4.2. Pertsonak
4.3. Baliabideak

Plangintzak honakoak jasotzen ditu ardatz bakoitzeko elementu bakoitzerako:



3. Ardazkako plangintza

- Helburuak
- Helburu horiek erdiesteko neurriak
- Kronograma
- Adierazleak
- Arduraduna



3. Ardazkako plangintza

1. Ardatza: Erakundearen irudia eta komunikazioa

1.1. HIZKUNTZA-PAISAIA ETA IRUDI KORPORATIBOA					
HELBURUA: Hizkuntza-paisaia eta irudi korporatiboa ele bietan egotea					
NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
1.1.2. Euskotrenen gaztelaniaz dauden barne-bulegoetako errotuluak ele bietan jartzea, euskarari lehentasuna emanez eta ETS enpresari eskatu berdin jardun dezan: segurtasun- eta osasun-mezuak, panelak eta bestelako errotulu batzuk (Errenteria, Larraineta, Gasteiz, Lutzana eta Leioan).				Ele bietan dagoen eta irizpidea betetzen duen errotuluen %	Aizpea Uribe
1.1.3. Tren estazioetan eta trenean ematen diren ahozko mezuak ele bietan izatea, euskarari lehentasuna emanez.				Ele bietan ematen diren eta irizpidea betetzen duten mezuen %	Aizpea Uribe



3. Ardazkako plangintza

1.2. HARRERA (ATXURI)

HELBURUA: Euskarazko harrera bermatzea, telefonoz nahiz aurrez aurre.

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
1.2.1. Telefonozko nahiz ahozko harrerarako protokoloa lantzea (lehen hitza, estrategia desberdinak...), harrera-lanetan jarduten dutenei jakinaraztea eta segimendua egitea.				Harrera-protokoloa dagoen ala ez Komunikaziorik egin den ala ez Euskaraz artatutako deien %	Joseba Barrena
1.2.2. Harreran harreragilearen hizkuntza-gaitasuna identifikatzeko bereizgarriren bat izatea, datorrenak jakin dezan euskaraz zuzendu ahal zaiola.				Harrera-hizkuntza identifikatzeko euskarriak dagoen ala ez	Joseba Barrena
1.2.3. Harrerako langilearen euskara-gaitasuna bermatzea: <ul style="list-style-type: none">Behin-behinekotasunerako eta/edo ordezkapenerako gutxieneko maila: B2 (ahozkoa)Lanpostuaren betetze egonkorrerako gutxieneko maila: B2, eskakizuna				Hizkuntza-eskakizuna betetzen duen ala ez	Javier Murillo



3. Ardazkako plangintza

2. Ardatza: Kanpo-harremanak

2.1. BEZEROA ETA ZERBITZUA					
HELBURUA: Bezero eta erabiltzaileei euskarazko zerbitzua bermatzea.					
NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
2.1.1. Ahozko nahiz idatzizko harremanetarako protokoloa zehaztea, jendaurreko lanpostuetan jarduten dutenei jakinaraztea eta segimendua egitea.				Ahozko harremanen protokoloa dagoen ala ez Komunikaziorik egin den ala ez Protokoloaren betetze-maila	Joseba Barrena
2.1.2. Bezero edo erabiltzaileekin ahozko harremana duten lanpostuetan euskal hiztunen kopurua handitzea: <ul style="list-style-type: none">Kontratazio berrietarako sortzen diren lan postsetan gutxieneko maila: B2. C1 bezeroen arreta bulegoko langileentzat.Barne-promozioetarako irizpidea: Bezero Arreta Bulegoan C1 eta Informazio eta Geltokietako Operadorean B2 hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa izango da, eta gainontzeko lanpostuetan baloratu egingo da (% 30).				Bezero/erabiltzaileekin harremana duten lanpostuetan hizkuntza-eskakizuna betetzen duten lanpostuen % Kontratazio berrietan hizkuntza-eskakizuna bete den lanpostuen %	Javier Murillo
2.1.3. Bezero edo erabiltzaileei Euskotrenekiko harremana euskaraz ere bidera dezaketela jakinaraztea txartel edo ohar bidez.				Jakinarazteko moduak ezarri diren ala ez	Joseba Barrena
2.1.4. Bezeroen gogobetetze-inkestan euskarazko zerbitzuarekiko gogobetetzea jasotzea.				Gogobetetze-inkestan hizkuntzaren inguruko galderarik txertatu den ala ez Gogobetetze-maila	Gorka Ugalde



3. Ardazkako plangintza

2.2. HORNITZAILEAK

HELBURUA: Bezeroarekiko harremanetan eragina duten hornitzaileei hizkuntza-irizpideak jakinarazi eta zerbitzua euskaraz emateko eskatzea.

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
2.2.1. Bezeroarekiko harremanetan eragina duten hornitzaileei edo azpikontraturiko enpresei, zerbitzua euskaraz emateko jarraibideak jakinaraztea eta segimendua egitea.				Komunikaziorik egin den ala ez Hizkuntza-irizpideen betetze-maila	Laura Andikoetxea
2.2.2. Bezeroarekiko harremanetan eragina duten hornitzaile edo azpikontraturiko enpresen egoera aztertu, eta baldintza-pleguetan euskara irizpide moduan txertatzen hastea.				Baldintza-pleguetan euskara irizpide moduan txertatuta dagoen ala ez eta betetzen den ala ez	Amaia Altube
2.2.3. Hornitzaile berriak aukeratzekoan (trebakuntza ematen dutenak, adibidez), euskaldunak lehenetsi ahal izateko, pleguetan euskara baloratuko dela jaso.				Hornitzaile berrietatik euskaldunak direnen %	Laura Andikoetxea

HELBURUA: Hornitzaileekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzea.

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
2.2.4. Baldintza-plegu administratiboak ele bietan izatea, baita teknikoak ere (euskara eskakizun moduan txertatzen denean).				Ele bietan dagoen pleru administratiboen % Ele bietan dagoen pleru teknikoaren %	Amaia Altube

HELBURUA: Hornitzaileekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzea.



3. Ardazkako plangintza

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
2.2.5. Kontratuak ele bietan egitea, euskara eskakizun moduan txertatzen denean.				Ele bietan dagoen kontratuen %	Amaia Altube
2.2.6. Idatzi sinpleak (eskaerak, esaterako) euskaraz edo ele bietan betetzea.				Euskaraz betetako dokumentuen %	Laura Andikoetxea
2.2.7. EAEko hornitzaileei jakinaraztea harremana euskaraz bidera dezaketela.				Hornitzaile guztietatik EAEkoak direnen % Komunikaziorik egin den ala ez Ahozko harremanetan euskararen erabilera %	Laura Andikoetxea

2.3. FINANTZA-ENTITATEAK

HELBURUA: Finantza-entitateekiko idatzizko harremanetan euskara erabiltzen hastea.

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
2.3.1. Idatzizko dokumentazioa ele bietan izatea.				Ele bietan dauden dokumentuen %	Silvia Gómez



3. Ardazkako plangintza

2.4. ENPRESA KOLABORATZAILEAK

HELBURUA: Enpresa kolaboratzaileekiko harremanetan euskararen erabilera handitzea.

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
2.4.1. Enpresa kolaboratzaileei Euskara Planaren berri ematea eta harremana euskaraz bideratu dezaketela jakinaraztea, eta euskarazko harreman kopurua handitzea.				Jakinarazpena egin den ala ez Euskaraz ematen diren harremanak	Amaia Altube

HELBURUA: Enpresa kolaboratzaileen bitartez gizartean enpresa euskaldunaren irudia zabaltzea.

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
2.4.2. Babesletza-hitzarmenetan euskararen erabilerari buruzko klausula txertatzea, elebitasuna bermatzeko bai kanpo eta baita barruko harremanetan.				Klausula txertatu den ala ez Klausula jasotakoaren betetze-maila	Amaia Altube



3. Ardazkako plangintza

3. Ardatza: Barne-harremanak

3.1. LANARI LOTUTAKO HIZKUNTZA-PAISAIA					
HELBURUA: Lanari lotutako hizkuntza-paisaian euskarari presentzia ematea.					
NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
3.1.1. Lanpostuetako hizkuntza-paisaian, batez ere harreran edo jendaurreko lanpostuetan, euskarak presentzia izatea.				Ele bietan dagoen eta irizpidea betetzen duen errotulazioaren %	Joseba Barrena
3.1.2. Trenetako barne-errotulazioa (pantailak, etab.) aztertu eta euskaraz erabili nahi duenari gaztelaniazkoaren pareko aukera eskaintzeko pausoak eman.				Trenetako barne-errotulazioa euskaraz erabiltzeko aukera dagoen edo ez	Joseba Barrena
3.1.3. Hornitzaileei eskatzea kafe-makinako eta gisako makinetako errotuluak/menuak euskaraz edo ele bietan jartzea.				Kafe-makinako errotuluak ele bietan dauden edo ez	Oscar Rivero



3. Ardazkako plangintza

3.2. PERTSONEN KUDEAKETA

HELBURUA: Langileekiko idatzizko komunikazioan euskararen presentzia bermatzea.

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
3.2.1. Langilearen atarian hizkuntza hautatzeko aukera egotea, eta gaztelania hutsez dauden dokumentuak lehenetsi eta ele bietan jartzea.				Ele bietan dagoen edukiaren %	Joseba Barrena
3.2.2. Gaztelaniaz dauden pertsonen kudeaketako dokumentuak (lanpostuen monografiak, kontratuak, etab.) ele bietan jartzea.				Ele bietan dagoen dokumentuen %	Joseba Barrena
3.2.3. Sindikatuek langileei bidalitako komunikazioak ele bietan izatea.				Ele bietan dagoen komunikazioen %	Sindikatuak

HELBURUA: Lan poltsa ofizialetatik datozen langile berrien kontratazio-prozesua euskaraz izateko pausoak ematea.

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
3.2.4. Lan poltsa ofizialetatik datozen langileen kontratazio-prozesuaren protokoloa lantzea euskaraz izan dadin eta eragindakoei jakinaraztea, ahoz nahiz idatziz, eman beharreko urratsak euskaraz bideratzeko ahalik eta gehien: <ul style="list-style-type: none">Lehen momentutik ahozko harremanak euskaraz bideratzea kontratazio-prozesuan zehar.				Euskaraz ematen diren urratsen %	Eneritz Garcia

HELBURUA: Barne-promozioetan hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko prozesua baloratzea.



3. Ardazkako plangintza

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
3.2.5. Barne-promozioetarako gaur egun hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko edo euskara maila balioztatzeko dagoen prozedura ezagutzea, aztertzea eta hobetzeko neurriak finkatzea.				Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko prozedura finkatu den edo ez	Eneritz Garcia
HELBURUA: Langile berri euskaldunen harrera euskaraz egitea.					
NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
3.2.6. Langile berri euskaldunen harrera-prozesuaren protokoloa lantzea eta eragindakoei jakinaraztea, ahoz nahiz idatziz, lehen harremanak euskaraz bideratzeko ahalik eta gehien: <ul style="list-style-type: none">Lehen momentutik ahozko harremanak euskaraz bideratzea.Langile etorri berriari dokumentazioa euskaraz edo ele bietan ematea, bai kontratazioari dagokiona, baita erakundeari dagokiona ere. Horretarako prestatzen ari den aurkezpen digitala ele bietan egotea.Euskaldunak diren langileekiko lehen harremanak euskaraz bideratzea.				Protokoloa landu eta jakinarazi den ala ez Kontratazio berrietan, harrera-prozesuan euskararen erabileraren %	Aitor Canibe



3. Ardazkako plangintza

3.3. LANEKO PRESTAKUNTZA

HELBURUA: Langileen euskara-gaitasuna handitzea.

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
3.3.1. Prestakuntza orokorra eta teknikoa antolatzerakoan hizkuntza-irizpidea kontuan hartzea (esate baterako, taldeak antolatzerakoan).				Euskaraz egindako ikastaroen %	Aitor Canibe
3.3.2. Hornitzaileei ikastaroak euskaraz izan daitezkeen galdetzea eta, posible ez denean, ikastaroko materiala euskaraz ere egoteko eskatzea.				Euskaraz egindako ikastaroen % Euskaraz dagoen materiala	Aitor Canibe
3.3.3. Eskaintzen diren ikastaroetan Euskotrenen hizkuntza-protokoloak kontuan hartzea eta horiek ere ikastaroko edukietan txertatzea (esate baterako, bezeroekiko harremanaren inguruko ikastaroetan).				Euskara eduki moduan txertatu den ikastaroen %	Aitor Canibe



3. Ardazkako plangintza

3.4. BALIABIDE INFORMATIKOAK

HELBURUA: Langile euskaldunek euskarazko baliabide informatikoak erabiltzea.

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
3.4.1. Euskaraz lan egiteko dauden baliabideen inguruko trebakuntza ematea langileei.				Zenbat langilek jaso duen ikastaroa.	Aitor Canibe
3.4.2. Langile euskaldunei euskarazko aplikazio informatikoak erabiltzea proposatzea eta, hala nahi duten neurrian, instalatzea (sistema eragilea, Office, posta elektronikoa...). Halaber, aplikazio horiek erabiltzeko argibideak eta tresna lagungarriak eskura jartzea (esate baterako, euskaraz lan egiteko baliabideen inguruko ikastaroan alderdi hau txertatzea).				Euskaraz erabiltzen den softwarearen % Erabilera errazteko emandako laguntzak	Jorge Escoin
3.4.3. Euskal hiztunak diren langile berriei euskarazko aplikazio informatikoak instalatzea.				Aplikazioak euskaraz dituzten langile berrien %	Jorge Escoin



3. Ardazkako plangintza

3.5. KOMUNIKAZIO HORIZONTAL ETA BERTIKALA

HELBURUA: Langile euskaldunen sarea sortzea

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
3.5.1. Langile euskaldunen mapa osatzea guneka eta horren berri ematea.				Mapa egin den edo ez	Joseba Barrena
3.5.2. Langile euskaldunak identifikatzeko bereizgarriak erabiltzea (posta elektronikoko sinaduran, mahai-gaineetan...).				Identifikatutako langile kopurua	Joseba Barrena
3.5.3. Langile euskaldunen arteko harremanak sendotzeko ekimenak gauzatzea (lehiaketak, euskara-planaren egitura, hamaiketakoak...).				Egindako ekimen kopurua eta parte-hartzaile kopurua	Joseba Barrena

HELBURUA: Langile euskaldunen arteko harremanetan euskararen erabilera handitzea.



3. Ardazkako plangintza

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
3.5.4. Euskararen aldeko giroa sortzea, eta langile euskaldunen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzea, euskararen erabilera handitzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Mintzagramak: ezagutza-mapak egin aukeratutako guneetan eta elkarrekin lanean jarduten dutenen artean (uneko egoera ezagutzeko eta aurrera begirako konpromisoa hartzeko). • Hizkuntza-ohiturak aldatzera bideratutako prozesuak martxan jarri talde naturaletan. • Euskararekiko motibazioa eta konpromisoa areagotzeko prozesuak martxan jarri talde naturaletan. • Lehiaketak, kanpainak... egin. 				Euskararen erabilera langileen artean %	Joseba Barrena
3.5.5. Euskara ikasten ari diren langileei erabilerarako saltoa ematen laguntzea: <ul style="list-style-type: none"> • Berbalagun moduko egitasmoak abian jarri, langile euskaldunek euskaraz egitea ikasten ari direnekin, euren ikasketa-ibilbidean laguntzeko. • Lanean ahoz nahiz idatziz euskara erabiltzeko helburu xumeak jarri eta segimendua egin. 				Euskara ikasten ari diren langileen erabilera %	Joseba Barrena
HELBURUA: Bileretan euskararen presentzia eta erabilera handitzea					
3.5.6. Batzarretarako protokoloa landu, hizkuntzaren erabilerari buruzko irizpideak jasoko dituen eta irizpideen arabera jardun.				Protokoloa landu den edo ez	Joseba Barrena

3.6. KUDEAKETA SISTEMA

HELBURUA: Kudeaketa-sistemetan euskararen presentzia eta erabilera handitzea



3. Ardazkako plangintza

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
3.6.1. Erakundeetan bertan sortzen den dokumentazioa (lan-aginduak, prozedurak...) ele bietan egotea.				Ele bietan dagoen eta irizpidea betetzen duen dokumentuen %	Joseba Barrena
3.6.2. Zerbitzua azpikontratatuta dagoen kasuetan (osasuna, prebentzioa, ingurumena...), dokumentazioa ele bietan egotea bermatzea.				Ele bietan dagoen eta irizpidea betetzen duen dokumentuen %	Laura Andikoetxea

3.7. ANTOLAKETA ETA ESTRATEGIA

HELBURUA: Dokumentazioa ele bietan egotea

NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
3.7.1. Kudeaketa ekonomiko-finantzarioari dagozkion dokumentu garrantzitsuenak ele bietan egitea.				Ele bietan dagoen eta irizpidea betetzen duen dokumentuen %	Silvia Gómez



3. Ardazkako plangintza

4. Ardatza: Hizkuntza-kudeaketa

4.1. HIZKUNTZA-POLITIKA					
HELBURUA: Lau ardatzetarako hizkuntza-politika diseinatzea					
NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
4.1.1. Hizkuntza-politika eta –irizpideak zehaztea, idatzizko dokumentu batean jasotzea, eta erakundeko organo nagusietan onartzea.				Hizkuntza-irizpideak jasotzen dituen dokumenturik dagoen ala ez.	Joseba Barrena
4.1.2. Hizkuntza-irizpideak langileei eta gainerako interes-taldeei (azpikontrataturiko enpresak eta hornitzaile estrategikoak, bezero eta erabiltzaileak...) jakinaraztea.				Komunikazioa egin den ala ez.	Aizpea Uribe Laura Andikoetxea Aitor Canibe
HELBURUA: Euskararen kudeaketa erakundeko kudeaketa-erremintetan txertatzea					
NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
4.1.3. Plan honetan jasotako helburu eta neurriak urteko kudeaketa-planean txertatuta egotea.				Kudeaketa-planean txertatu diren ala ez.	Javier Murillo
4.1.4. Langileen eta gainerako interes-taldeen ekarpenak jasotzea eta planean integratzea.				Ekarpenik jaso den ala ez. Parte hartutako langile kopurua	Joseba Barrena
4.1.5. Aurrerapen-mailaren segimendua edo ebaluazioa egitea eta hobekuntza-neurriak hartzea.				Segimendurik egin den ala ez. Planaren betetze-maila.	Joseba Barrena



3. Ardazkako plangintza

4.2. PERTSONAK					
HELBURUA: Langile euskaldunen kopurua handitzea.					
NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
4.2.1. Lanpostu guztietarako ezarritako beharrezko euskara-gaitasuna ziurtatzea, lanpostuen deskribapenetan txertatzea, kanpo deialdietarako eta barne-promozioetarako finkatutako irizpideen arabera jardutea. (Ikus: Hizkuntza Eskakizunen eranskina)				Kontratazio irizpideak jasotzen dituen dokumenturik dagoen ala ez. Irizpideen betetze-maila.	Javier Murillo
4.2.2. Jendaurreko lanpostuetan dauden langileei lanpostura egokitutako trebakuntza-moduluak eskaintzea, lan-orduetan, euskara-mailaren arabera antolatuta. Honako lanpostuak izango dira lehentasunezkoak, besteak beste: <ul style="list-style-type: none">• Lineako agentea eta geltokietako agentea.• Autobus- eta tranbia-gidariak. Hitzarmenean 51. artikuluan aipatzen diren 5 liberazioen ordu kopurua, trebakuntza-orduak bilakatuko dira lehentasuna duten lanpostuetan.				Jendaurreko lanpostuetan dauden langileek jasotako trebakuntza-orduak Trebakuntzan parte hartu duen langile-kopurua Euskararen ahozko erabileraren % jendaurreko lanpostuetan	Joseba Barrena



3. Ardazkako plangintza

HELBURUA: Zuzendaritza eredu izatea, hizkuntza-lidergoaren ikuspegitik.					
NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
4.2.3. Planaren diseinuan, kudeaketan eta segimenduan parte hartzea				Euskara-planeko egituretan parte hartzen duten zuzendaritzako kideen kopurua	Javier Murillo
4.2.4. Erakundeko langileak euskara erabiltzera motibatzea, eta lanean euskararen aldeko giroa sortzea.				Euskararen erabileraren % zuzendaritzako kideen artean	Javier Murillo



3. Ardazkako plangintza

4.3. BALIABIDEAK					
HELBURUA: Plana garatzeko egitura eratzea					
NEURRIAK	2015	2016	2017	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA
4.3.1. Euskara-plana garatzeko egitura sortzea eta langileak horretan inplikatzeari (batzordeak, hobetze-taldeak, berariazko lantaldeak...)				Egiturretan eta planean parte hartzen duen langileen % Egiturak sortu diren ala ez	Javier Murillo
4.3.2. Koordinatzaileak nahiz gainerako parte-hartzaileek planaren garapenerako dedikazioa izatea.				Asistentzia Planari eskainitako dedikazioa	Javier Murillo
HELBURUA: Plana garatzeko baliabideak izatea					
4.3.3. Euskara Planeko gastuak (dedikazioa, itzulpenak, hizkuntza-lanabesak, trebakuntza...) aurrekontuan txertatzea.				Aurrekontuan partida txertatu den ala ez	Javier Murillo
HELBURUA: Beste erakunde batzuekin aliantzak izatea, elkarrengandik ikasteko					
4.3.4. Antzeko erakundeekin harremanak lantzea, elkarren berri izateko eta baliabideak optimizatzeko.				Egindako harreman kopurua	Joseba Barrena



4. Plana garatzeko egitura

EUSKARA BATZORDEA (12-15 kide)

OSAERA

- Euskara Planaren koordinatzailea, Joseba Barrena
- Zuzendaritzako ordezkaria, Javier Murillo
- GGBBko ordezkaria, Eneritz Garcia
- Aholkularitza Juridikoko burua, Amaia Altube
- Komunikazio arduraduna, Aizpea Uribe
- Donostiako Bezeroen Arretako arduraduna, Enrike Bengoetxea
- Erosketak Saileko ordezkaria, Laura Andikoetxea
- Sindikatuetako ordezkariak (6 gehienez)

FUNTZIOAK

- Euskara-planaren helburu orokorraren eta helburu zehatzen jarraipena egitea eta, behar izanez gero, egokitzea.
- Urteko plangintza lantzea eta plangintzari segimendua egitea eta, beharrezkoa denean, neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Komunikazio-plana diseinatu eta segimendua egitea.
- Helburuak lortu eta egonkortzeko oinarriak lantzea eta ardurak hartzea.

FUNTZIONAMENDUA

- Urtean hiruzpalau batzar egingo ditu



4. Plana garatzeko egitura

GAIKAKO LANTALDEAK

OSAERA

- Koordinatzailea, Joseba Barrena
- Zuzendaritzako ordezkaria, Javier Murillo
- GGBBko ordezkaria, Eneritz Garcia
- Plana onartzen duten sindikatuetao ordezkari bat.
- Landuko den gaiarekin harreman zuzena edo gaiak eragingo dioten lanpostuetako kideak (2 kide gehienez)

FUNTZIOAK

- Dagokion gaiaren lanketa egin: gaur eguneko egoera aztertu, hobetzeko neurriak proposatu eta martxan jarri.
- Gaiaren arabera, aurrez, proposamena Euskara Batzordean aurkeztu eta proposatutako neurriak martxan jartzea.
- Komunikazio-lanak bideratzea.

FUNTZIONAMENDUA

- Maiztasuna eta iraupena, gaiaren arabera, urteko kudeaketa planean zehaztuko da.

2015ari begira honako bi lantaldeak sortzea proposatzen dugu: kanpo harremanetarako lantaldea (protokoloa zehazteko eta segimendua egiteko) eta barne-erabilera sustatzeko lantaldea.